

Dorian Grayren egiazko erretratua



Aitor Arana

Dorian Grayren
egiazko
erretratua



LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2011ko azaroa

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Aitor Aranak OBRARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla nafarroa
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

literotura

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Graficas Lizarra
Tafallako errepidea 1. Km.
31132 Villatuerta - Nafarroa

ISBN
978-84-15313-07-6
LEGE GORDAILUA
NA. 3.357-11

txalaparta 

SARRERA

OSCAR WILDEK 1891N *The Picture of Dorian Gray* eleberria liburu moduan argitaraturik ikusi zuenean, ziur aski sentimendu gazi-gozaok izango zituen bere baitan. Batetik, pozik egongo zen, 1890ean *Lippincott's Monthly Magazine* aldizkarian atalka argitaratutako eleberria osorik kaleratuta ikusi zuelako eta, bestetik, atsekabe ezkutua izango zuen, berez «gay girokoa» zen idazlana, itxuraz berak nahi zuen baino «heterosexualago» idatzirik argitaratu behar izan zuelako. Izan ere, XIX. mende hondarreko gizarte viktoriarreko armairuan sortu behar izan zuen Dorian Grayren erretratua, Ingalaterrako gayentzat biziki iluna izan zen garaian.

Irlandar idazlearen eleberri luze bakarra nagusiki bi ikuspegitatik aztertu dela esan genezake. Lehenik, gizakiaren betidaniko ametsa den betiko gaztetasuna langai duela dioen ikuspegia dago, bere baitan bizimodu bekatariak azkenean zigorra izango duela adierazten duen mezu moralista eta guzti. Eta, bigarrenik, dandismoak apaindutako izu-ikarazko eleberria dela dioen ikuspegia. Dorian Gray hedonistak, ordea, 120 urte bete ditu eta, denbora horretan, haren egilea zigortu eta murgatu zuen Europako giro homofobia desagertuz edo nabarmen murriztuz joan da. Horren ondorioz, zenbait iruzkingilek eta

hitzaurregilek hainbat aldiz aztertu eta aipatu dute Oscar Wilderen eleberriaren alde gaya, Wildek berak narrazioaren oinarri gisa erabili zuena. Daniel Mortier hitzaurregile frantsesa da diogunaren adibide ona.

Guri *Dorian Grayren erretratua* (Bittor Hídalgo lehenbizikoz euskaratua, Elkar, 1986) goiko hiru ikuspegi horiek guztiak batera biltzen dituen idazlana iruditzen zaigu: betiko gatzetasunaren inguruko gogoeta du muin, dandismoak apaindutako misteriozko narrazioa da eta, hori bai, armairuan idatzitako eleberri gaya da. Dorian Gray maritxu peto-petoa da eta, gainera, maritxuago ageri da Oscar Wildek 1890ean 13 kapitulutan idatzitako bertsiotan, 1891n berridatzitako 20 kapitulutako bertsiotan baino [Ikus *The Picture of Dorian Gray (1891 Novel)* eta *The Picture of Dorian Gray (1890 Serial as Seen in Lippincott's Monthly Magazine)*].

Horren haritik, lagunartean askotan izan dugu aipagai lehenago geure kabuz pentsatu duguna: Oscar Wilderen garaiko gizartea gaur egungo gurearen antzekoa izan balitz eta, hartan, gayek lasai bizitzeko, ezkontzeko eta dibortziatzeko eskubidea izan balute, nola idatziko zukeen idazleak eleberria? Erantzuna agerikoa iruditzen zaigu: oso bestela. Menturaz, egiazko gay nobela idatziko zukeen.

Oscar Wilde dohakabea hil zela 111 urte igaro direnean, ez dugu uste haserretuko zaigunik, haren idazlana hartu eta idazlea libre izan balitz liburua nola idatziko zukeen asmatzeko edo proposatzeko jokoan jolas egin dugulako. Haren behin betiko bertsiota hartu dugu –20 kapitulu dituen– eta, lehenik eta behin, laburtu egin dugu, gaur egungo irakurleak irakurtzeko daukan denbora laburrari egokitzeko. Bigarrenik, jatorrizko bertsiotan Dorian Grayren «bekatu eta ekintza gaitzesgarri ezkutuak» direnak, gure bertsiotan, Dorianen munduaren funtsezko oinarri eta gozamen-iturri bihurtu ditugu. Horrela, ohiko eta ezohiko sexu-jardun gay mota guztien praktikataile grinatsu azalduko zaigu, adiskidetasuna ez duela ikusten sexuketaren muga gisa.

Bestetik, geure buruari Oscar Wildek berak liburua nola idatziko zukeen galdetu diogunez, hark egindako liburuaren egitura bere hartan utzi dugu, eta kapitulu hasiera eta kapitulu amaiera guztiak haren eskuak idatzi bezala mantentzen saiatu gara. Ez da beti erraza izan, gure Dorian gay alaiak baduelako funtsezko desberdintasun handi bat jatorrizkoaren ondoan; alai, txortalaria eta bizizalea denez, liburu osoan ez du inor hilko eta, horrela, Oscar Wildek hildako hainbat pertsonaia, gure bertsioan, bizirik eta Dorianen lagun handi eginek ikusiko ditugu. Era berean, *The Picture of Dorian Gray* eleberri gaya dela dioten teoria nagusietako batekin bat egin dugu, guk ere uste dugulako Sibyl Vane neska aktorea –jatorrizko bertsioan Dorianen erdi emaztegai gisa ageri dena– benetan mutilaren homosexualitatea ezkutatzeko estalkia dela. Gure bertsioan, neska xarmagarria Ziril Vane izeneko mutil eder bihurtu dugu.

Gu ez gara Oscar Wilde eta, beraz, ez dugu uste Dorianen sexu-jarduna hark deskribatuko zukeen bezalaxe deskribatzen asmatuko genuenik, baina ziur gaude Wildek gurea irakurtzerik baleuka, irribarre egingo lukeela behin eta berriz. Gaur egungo irakurleari gure bertsioarekin irribarre egin dezala desio diogu, eta zenbait atsegin izan ditzala ere opa diogu.

AITOR ARANA

Azpeitian, 2011ko udaberrian

LEHEN KAPITULUA

LANGELA ARROSA-USAINEZ BETERIK ZEGOEN, eta udako haizea lora-tegiko zuhaitzen artetik igarotzean, ate zabaletik loreen lurri-na sartzen zen.

Lord Henry Wotton gorputz liraineko filosofo argia eta bizarduna besaulki batean eserita zegoen, zigarro bat erretzen, ohi bezala. Kea sabairantz nola igotzen zen ikusten zuen tar-teka. Atetik Londreseko kaleetako zarata urruna sartzen zen. Gelaren erdian gizon gazte eta guztiz eder baten erretratua zegoen. Biluzik ageri zen, tente eta erne, irribarretsu eta eskui-neko hanka pixka bat aurreraturik, zakil-barrabilak izter gai-nean jarrita, ikuslea bere hankartekoarekin jolas egitera gon-bidatu nahi balu bezala. Erretratuaren aurrean zutik, artista bera zegoen, Basil Hallward izeneko margolaria, ile beltzeko hogeita bost urteko gizaseme erakargarria. Egiten ari zen lana-ri begiratzen zion bitartean, irribarre egin zuen pozik.

—Zure lanik onena da, Basil maitea, inoiz egin duzun one-na —esan zion Lord Henryk, poliki—. Benetan, datorren urtean Grosvenor galerian erakutsi behar duzu. Grosvenor da hone-lako lanak erakusteko moduko leku bakarra.

—Ez dut uste inora bidaliko dudarik —erantzun zuen mar-golariak, burua halako modu bitxian mugitzeaz batera; mugi-

mendu hura zela eta, Oxfordeko Unibertsitateko lagunek askotan egin zioten barre-. Ez, ez dut inora bidali nahi.

Lord Henryk harriturik begiratu zion bere zigarroaren ke artetik.

—Ez duzula erretratua bidali nahi? Ene lagun maitea, zergatik ez? Bai arraroak zaretela pintoreak!

—Badakit nitaz barre egingo duzula –Basilen erantzuna–, baina benetan ezin dut ikusgai jarri. Neure baitako gehiegi jarri dut lan honetan.

Lord Henryk nagiak atera zituen besaulkian eta barre egin zuen.

—Zeure baitako gehiegi jarri duzula! Basil, gazte hau benetan da ederra. Zu ere halakoa zara, askotan esan dizut, baina ez du zure antzik. Beste era batekoa da, ilehoria eta lerdena; Londreseko neska-mutil guztiak maitemintzeko modukoa.

—Ez duzu ulertzen, Harry –erantzun zion artistak–. Jakina da ez naizela hura bezalakoa. Sentituko nuke haren antzekoa banintz. Onena da gehienak bezalakoa izatea –lord gazteak bekain-keinu batez desadostasuna adierazten ziola ikusi zuen–. Ergelek eta itsusiek mundu honetako onena daukate. Dorian Gray..

—Dorian Gray? Hori al da horren izena? –galdetu zuen Lord Henryk erretratuari begira, Basil Hallward zegoen alde-rantz zebilela.

—Bai, horixe da modeloaren izena. Ez nuen zuri esateko asmorik.

—Baina, zergatik ez?

—Badakizu zergatik, Harry: mutil eta gizon gazte guztiak gustatzen zaizkizu. Pertsona jakin batzuk oso gogoko ditudanean, ez diot inori haien izenik esaten; are gutxiago zuri, nigan-dik urrunduko baitzenuke laster asko.

—Jakina, bada, ezetz –Lord Henryren erantzuna–, ene Basil maitea. Gizon tontolo eta lodikote baina jator batekin ezkon-duta nagoela ahazten zaizu, eta nire bizitza sekretuz beteta dagoela. Beti daki norekin oheratzen naizen, eta nik beti dakit

norekin oheratzen den. Eta gauetz etxean ohera joatean, gure abenturak elkarri kontatzen dizkiogu, ondoren bata besteari buztana poz-pez miatzeko.

—Ez dut batere atsegin nola hitz egiten duzun zure ezkonbilitzaz, Harry —esan zion Basil Hallwardek, lorategira irteteko aterantz zihoala—. Oso senar ona zarela uste dut eta oso senar ona daukazula, baina horrexek lotsatzen zaituela. Inoiz ez duzu ezer onik esaten, eta inoiz ez duzu ezer txarrik egiten.

Lord Henryk barre egin zuen, eta Basili masailetan jarri zizkion eskuak, pixka bat estutu eta, margolariari haren eraginez ezpainak zimurrak eta irtenak jarri zitzaizkionean, musu eman zion haietan.

—Ez esan ezer —agindu zion berehala.

—Harry, ondo dakizu... —hasi zen artista kexati, baina Lord Henryk ez zion bukatzen utzi.

—Bai, badakit tontolo hutsa zarela, eta horrelako musuak zure maiteari bakarrik eman nahi dizkiozula, harekin maite-mintzen zaren egunean, eta harekin bakarrik oheratuko zarela. Baina gu oso lagun onak gara, eta nik oso gogoko dut lagun onei musu ederrak ematea.

Basilek burua astindu zuen, inoiz aldatuko ez zen lagunaren aurrean errendituz bezala. Bi gizonak orduan lorategira elkarrekin atera ziren. Txoko bateko jarleku batean eseri ziren. Aldi batez isilik egon ondoren, Lord Henryk atzera mugitu zuen bere kapela.

—Joan beharra dut, Basil —esan zuen ahots lasaiz—. Baina, alde egin aurretik, Dorian Grayren erretratua zergatik ez duzun erakutsi nahi argitza nahi nuke. Egiatzko arrazoia jakin nahi dut.

—Esan dizut, ordea, egiatzko arrazoia.

—Ez didazu esan, ez horixe. Hartan zeure baitako gehiegi jarri duzula esan didazu. Hori umekeria hutsa da.

—Harry —esan zion Basilek, aurpegira zuzen begiratzen zioala—, sentimenduz margotutako margolan oro artistarena da, ez modeloarena. Ez dut margolan hori erakutsiko, neure arimaren sekretua erakutsiko ote duen beldurrez nagoelako.

Lord Henryk barre egin zuen berriz ere.

—Eta zein sekretu da hori, bada? —galdetu zuen.

—Tira, ez da oso kontu joria, Harry —erantzun zion margolariak—, eta ez dut uste ulertuko duzunik. Beharbada, sine-tsi ere ez duzu egingo.

Lord Henryk irribarre egin eta lore bat hartu zuen belarretatik.

—Ziur nago ulertuko dudala —erantzun zuen, loreari arretaz begira—, eta edozer sinesteko gauza naiz.

—Oso kontu sinplea da —ekin zion margolariak—. Duela bi hilabete Lady Brandonen etxeko jai batera joan nintzen. Egon-gelan hamar bat minutuz egon ondoren, norbait begira neukala ohartu nintzen bat-batean. Jiratu, eta Dorian lehenbiziko aldiz ikusi nuen. Gure begiek topo egin zutenean, odola nire aurpegitik desagertzen sentitu nuen. Mutil hura neure arima izango zela jakin nuen, neure artea bera.

—Bai, niri ere gertatu izan zait: odola aurpegitik joaten zai-gu, beheko beste horretan pilatzen delako, halako mutil pus-kak ikusita. Berezko erreflexua da, ez kezkatu horregatik.

—Horrela jarraitzen baduzu, ez dizut ezer esango.

—Tira, zer egin zenuen?

—Elkarrengandik hurbil geunden, ia elkar ukitzen. Elkarri begiratu genion berriz ere. Lady Brandoni gu aurkezteko eska-tu nion.

—Zer esan zuen Lady Brandonek Dorian Gray jaunari buruz?

—Bada, honelako zerbait: «Mutil xarmagarria da. Ez dakit zer egiten ote duen... ez dut uste ezer egiten duenik. A, bai, pia-noa jotzen du... edo biolina ote da, Gray jaun maitea?». Dorian eta biok barrez hasi eta berehala adiskidetu ginen.

—Barre egitea ez da, gero, adiskidetasunari ekiteko modu txarra —esan zuen lord gazteak, beste lore bat hartu bitartean—, eta hura amaitzeko modurik onena da. Berehala oheratu zinen? Zakila erretratuan bezalakoa dauka? Hor txikia ikusten zaio, ez duzu uste?

Hallwardek burua mugitu zuen.

—Ez duzu ulertzen adiskidetasuna zer den, Harry. Bost axola zaizu dena.

—Ez da egia! —bota zuen Lord Henryk, kapela atzera mugitzeaz batera, eta udako zeruari begira—. Nire lagunak edertasunaren arabera aukeratzen ditut, eta nire etsaiak adimenaren arabera. Gizonak ez dauka arretatsuegia izaterik etsaiak aukeratzeko garaian. Eta, noski, nik gorroto handia diet nire senideei. Eta jende behartsuari, itsusiak direlako, ergelak eta mozkorrak.

—Ez nago ados esan duzun ezerekin. Eta ziur nago zu zeu ere ez zaudela.

Lord Henryk bizarraren punta ukitu zuen hatz batez, eta zapataren bota eskumakilaz.

—Zeinen ingelesa zaren, Basil! Ingelese

—Egunero. Ezingo nintzateke zorient

—Bikaina! Zure artea soilik axola zitzaizula uste nuen eta benetan kezkatzen hasita nengo

—Hura da orain nire arte oso —adierazi zuen margolariak—. Ongi dakit Dorian Gray ezagutuz gero egin dud

—Bai, hori zoragarria da! Ez naiz batere harritzen. Dorian Gray ikusi behar dut.

Basil Hallward eserlekutik altxatu eta alde batetik bestera ibili zen lorategian. Pixka bat geroago itzuli zen.

—Harry —esan zion—. Dorian Gray nire artearen izateko arrazoa da. Zuk ezin duzu harengan ezer berezirik ikusi: zure lizunkeriak mugatzen zaitu. Nik, berriz, dena ikusten dut harengan.

—Orduan zergatik ez duzu haren erretratu

—Artistak gauza politak margotu behar lituzke, baina ez luke haietan bere bizitzako ezertxo ere jarri behar. Egunen batean munduari edertasuna zer den erakutsiko diot. Horrekegatik, munduak ez du sekula Dorian Grayren erretratu

—Oker zaudela pentsatzen dut, Basil, baina ez naiz zurekin eztabaidan hasiko. Esadazu, oso gogoko zaitu Dorian Grayk? Beharbada, zurekin oheratzeko irrikan egongo da.

Margolariak pixka batez pentsatu zuen.

—Haren gustukoa naiz —erantzun zuen pixka bat geroago—. Badakit haren gustukoa naizela. Losintxa gehiegi egiten diot, noski, eta esan behar ez nizkiokeenak esaten dizkiot. Oso atsegina da nirekin, eta milaka ordu zoragarri ematen dugu elkarrekin. Baina batzuetan ikaragarri axolagabea izaten da, eta niri min egiteak atsegin ematen diola dirudi. Halakoetan sentitzen dut, Harry, neure arima osoa eman diodala, lorea udako egun batez botoi-zuloan jartzean bezala erabiltzen duen bati.

—Udako egunak luzeak dira, Basil —esan zuen Lord Henryk, ahopean—. Beharbada, hura baino lehen aspertuko zara. Adimena iraunkorragoa da edertasuna baino. Egunen batean zure lagunari begiratu, eta haren azalaren tonua edo beste zerbait ez zaizu gustatuko. Orduan, zurekin gaizki portatu dela pentsatzen hasiko zara.

—Harry, ez hitz egin horrela. Ni bizi naizen artean, Dorian Gray berebizikoa izango da niretzat. Zuk ezin duzu sentitu nik sentitzen dudana. Zu sarriegi aldatzen zara.

—Ene Basil maitea, hain zuzen ere horregatik senti dezaket zuk bezala —Lord Henryk zilarrezko bere zigarro-kaxa ederetik beste zigarro bat atera eta piztu egin zuen. Gero Hallwardengana itzuli zen eta esan zion—: Oraintxe oroitu naiz.

—Zertaz oroitu zara, Harry?

—Non entzun dudan Dorian Grayren izena.

—Non? —galdetu zuen Hallwardek, kopeta zimurturik.

—Ez zaitetz haserretu, Basil. Nire izeba Lady Agatharen etxean izan zen. Gazte zoragarri hori aurkitu zuela esan zidan. Hark Londreseko East Endeko jende txiroarekin lan egiten lagunduko zion, eta haren izena Dorian Gray zen. Nik orduan, noski, ez nekien zure laguna zenik.

—Pozten naiz ez jakiteaz, Harry.

—Zer bada?

—Ez dut nahi hura ezagut dezazun.

—Ez duzu nahi hura ezagut dezadan?

—Ez bada.

—Dorian Gray jauna zure zain dago langelan, jauna –esan zuen zerbitzariak orduan, lorategian azalduta.

—Orain aurkeztu egin beharko nauzu –esan zuen Lord Henryk bizi-bizi, barrez.

Margolaria bere zerbitzariagana jiratu zen.

—Esaiozu Gray jaunari itxaroteko, Parker. Berehala sartuko naiz.

Orduan Lord Henryri begiratu zion.

—Dorian Gray nire lagunik maiteena da –esan zion–. Oso pertsona ona da. Ez hondatu. Ez zaitetz saiatu, gero, harengan eraginik izaten. Zure eragina kalterako litzateke. Ez kendu niri, gero, egiazko artista bihurtzen nauen lagun bakarra.

—Zer-nolako lelokeriak esaten dituzun! –esan zion Lord Henryk irribarrez. Hallwardi besotik heldu zion eta ia tiraka sarrarazi zuen etxe barrura, ezpainetan, jostetan, beste musu bat eman ondoren.

BIGARREN KAPITULUA

SARTU ZIRENEAN, DORIAN GRAY IKUSI ZUTEN. Pianoaren aurrean eserita zegoen, bizkarra erakusten ziela, eta Schumannen musika-idazlan baten orriak pasatzen ari zen.

—Hau utzi behar didazu, Basil —esan zuen bizi-bizi—. Ika-si egin nahi dut. Zoragarria da erabat.

—Beharbada, gaur niretzat ongi posatzen baduzu, Dorian.

—Ene, nekatuta nago posatzeaz, eta ez dut gorputz osoko erretraturik nahi —erantzun zuen gazteak, poliki jiratzen zela. Lord Henry ikusi zuenean, pixka bat gorritu zen—. Sentitzen dut, Basil. Ez nekien beste norbaitekin zeundenik.

—Hau Lord Henry Wotton da, Dorian. Aspaldiko lagunak gara. Elkarrekin ibili ginen Oxforden. Oso modelo ona zarela esan berri diot, eta orain dena hondatu duzu.

—Ez duzu hondatu nik zu ezagutzeko atsegina, Gray jauna —esan zion Lord Henryk, harengana hurbildu eta eskua luzatuta—. Nire izebak askotan hitz egin dit zutaz.

—Beldur naiz Lady Agatha ez ote den honezkero nitaz nekatu. Asteartean berarekin Whitechapel klubera joango nintzela hitzeman nion, eta zeharo ahaztu zitzaidan. Ez dakit zer esango ote didan.

Lord Henry gazteari begira zegoen. Bai, benetan zen guztiz ederra, ezpain gorri biribil haiekin, begi urdin zintzoekin eta ile urreztatuarekin.

—Ez zaitezela nire izebagatik kezkatu —esan zion lord gazteak—; haren lagun kutunetakoa zara. Eta xarmagarriegia zara hor nonbait jende behartsuari laguntzen denbora galtzen ibiltzeko.

Orduan Dorian Gray biluzten hasi zen, hala posatu behar zuenez gero.

Lord Henry besaulkian eseri zen eta bere zigarro-kaxa ireki zuen. Oso atsegin zitzaion Dorian biluzten ikustea eta, zigarro bat piztu bitartean, ez zion une batez ere begiratzeari utzi. Horrela, haren bular eta bizkar biluziak ikusi zituen lehenik. Basilek oso ongi margotu zituela baieztatu ahal izan zuen lordak. Dorian ez zen kirolari gihartsua, baina mutil argala ere ez zen, eta bular zabala zeukan, eta haren titiburuak tenteak eta ilunak ziren. Prakak erantzi zituen orduan, eta galtzontzilo luze zuriak jantzita zeuzkala ikusi zuen. Gazteak, kendu ahal, aulki baten gainean uzten zituen arropak. Galtzerdiak kendu zituen jarraian eta, azkenik, galtzontzilo luzeak. Lord Henry berehala ohartu zen mutilaren zakila Basilek margotutakoa bezain txikia zela, edo orain behintzat hala ageri zela; gogor-rean handiagoa izango zen, noski. Gaztearen ipurdia trinkoa eta biribila zen, ile askorik gabea. Lord Henryk, hanka zabalik eserita, odola zakila gogortzen ari zitzaiola sentitu zuen. Ez zuen, haatik, hankak gurutzatzeko keinurik egin.

Basil margolaria lanerako prestatzen ari zen koloreak nahi-siz eta pintzelak txukunduz. Bat-batean, Lord Henryri begiratu zion zerbait esateko asmoz, eta lagunaren hankarteak praka-pean handituta zegoela ohartu zen.

—Harry, erretratua gaur bukatu nahi nuke —esan zion tinko—. Desatsegina izango naiz joan zaitezela eskatzen badizut?

Lord Henryk irribarre egin zuen eta Dorian Grayri begiratu zion.

—Joan egin behar dut, Gray jauna? —galdetu zuen.

Dorian Gray, oharkabeko esku mugimendua eginez, barra-bilak ondo jarri zituen, gizonetzko guztiek egin ohi duten moduan.

—O, ez iezaiozu kasurik egin, mesedez, Lord Henry. Ikusten dudanez, Basilek umore txarraldi horietako bat du, eta ez zaizkit batere gustatzen —mutila orduan lordaren hankarte-koaren handiaz ohartu zen—. Gainera, jende behartsuari zergatik ez niokeen lagundu behar esan diezadazun nahi dut.

—Hori oso aspergarria litzateke, Gray jauna. Baina oso pozik geratuko naiz, zuk ez baduzu nahi ni joaterik. Ados zaude, Basil? Askotan esan didazu gogoko duzula zure modeloek nor-bait edukitzea harekin hitz egiteko.

Hallwardek kosk egin zion beheko ezpainari.

—Dorianek hala nahi badu. Beti lortzen du nahi duena. Baina egia da lanean ari naizenean ez dudala hitz egiten, eta entzun ere ez dut egiten. Oso aspergarria naiz, nonbait, nire modeloentzat. Zaude hor lasai, Harry. Eta Dorian, ez zaitez asko mugitu eta ez kasurik egin Lord Henryk dioenari. Oso eragin txarra izaten du bere lagun guztiengan.

Dorian Gray zutik egon zen Basil Hallwardek haren erretratua bukatzen zuen bitartean. Lord Henryrengan ikusi zuena gustatu zitzaion. Basil eta hura hain ziren desberdinak! Eta oso ahots polita zeukan. Pixka bat geroago esan zion:

—Egia ote da hain eragin txarra izaten duzula, Lord Henry? Basilek dioen bezain txarra?

—Eragina beti da txarra.

—Zergatik?

—Nor baitengan eraginik izateak hari arima eskaintzen zaio-lan esan nahi duelako. Pertsona orok izan behar du berezko nor-tasuna.

—Mugitu burua pixka bat eskuinetara, Dorian —agindu zuen margolariak. Ez zen elkarrizketa aditzen ari, eta gauza bat baino ez zekien: gaztearen begietan inoiz ez bezalako begi-rada ikusten zela.

—Eta hala ere —jarraitu zuen Lord Henryk bere ahots lasai eta musikalaz— gizon batek bere bizitza bete-betean biziz gero,

mundua alda dezakeela pentsatzen dut. Hori inoiz irudikatu-tako artelanik handiena litzateke. Baina gizonik ausartena ere bere buruaren beldur izaten da. Zu, Gray jauna, oso gaztea zara, baina beldurtzen zaituzten grinak daukazazu, ametsak...

—Oso ondo ulertzen dizut —Dorian Grayk, bizi-bizi—. Gauza batean oker zaude, ordea: nire grinek ez naute beldurtzen, bizitu egiten naute.

Irribarretsu, Lord Henryk atseginez begiratu zion. Bazekien zein zen ezer ez esateko une egokia. Harrituta zegoen, bere hitzak gazteak zeinen azkar bereganatu zituen ikusirik. Nolako mutil liluragarria zen!

Hallwardek margotzen jarraitu zuen, eta ez zen konturatu bestek isilik baina elkarri etengabe begira zeudenik.

—Basil, nekatuta nago —esan zuen Dorian Grayk orduan—. Lorategira irten eta han eseri beharra daukat. Hemen ezin dut arnasarik hartu.

—Ene mutil maitea, sentitzen dut. Margotzen ari naizenean, neure lanaz baizik ezin dut pentsatu. Baina inoiz ez duzu gaur baino hobeto posatu. Ez dakit zer esan ote dizun Harryk, baina zure begiek dir-dir zoragarria daukate. Lausengatu egingo zintuela pentsatzen dut. Esaten duen hitz bakar bat ere ez zenioke sinetsi behar.

—Ez dit batere lausengurik egin. Beharbada, horrexegatik ez dut sinesten esan didan ezer.

—Badakizu dena sinetsi didazula —esan zion Lord Henryk, begi ameslariz begiratzen ziola—. Zurekin joango naiz kanpora, lorategira. Gela honetan bero handia dago.

—Ez entretenitu Dorian luzaroegi —esan zuen pintoreak—. Hau nire koadrorik onena izango da.

Lord Henry lorategira atera zen, eta Dorian lore bat aurpegi aurrean hartuta zeukala aurkitu zuen. Gerriaren inguruan eskuoihal zuri bat zeukan gona moduan jantzita. Harengana hurbildu zen eta eskuoihala kendu zion esku batez.

Dorian Grayk irribarre egin zuen, baina urrundu egin zen, jolasti. Gogoko zuen ondoan zeukan gizon gaztea eta garaia.

Haren aurpegi ilun eta erromantikoa interesgarri zitzaion. Baze-
goen zerbait liluragarria haren ahots baxu eta musikalean. Eta
eserita zegoenean prakapean antzematen zitzaiona benetan
ote zen zirudien bezalakoa? Hilabeteak ziren Basil Hallward
ezagutzen zuela, baina bien arteko adiskidetasunak ez zuen
gaztearen sexu-grina piztu. Bat-batean, norbait haren bidean
gurutzatu zen, eta bizitzaren atsegini onenak eskaintzen ziz-
kiola zirudien; delako hark atsegin haien giltza prakapean zeu-
kala zirudien.

—Eser gaitezen itzalean. Ez nuke nahi eguzkiak zu erre-
terrik —esan zion lordak.

—Zer axola dio, bada? —bota zuen Dorian Grayk barrez, eta
lorategiaren barreneko jarlekuaren ondoan zutik geratu zen.

—Axola behar litzazuke, Gray jauna —Lord Henryk berriz,
jarlekuan eseri bitartean. Dorianen sabel biluzia begien parean
geratu zitzaion eseri zenean.

—Zergatik? —galdetu zion mutilak, sabela haren aurpegi
aldera pixka bat hurbilduz, zakila jadanik tente, ahoan har-
tzeke gonbit argia egiten ziola lagun ezagutu berriari.

—Gaztea zarelako, eta gaztea izatea munduko gauzarik one-
na da —erantzun zuen gizonak, Dorianen gonbitari uko eginez,
baina, aldi berean, prakak zabaltzen zituela. Lurreraino behe-
ratu zituen eta, ondoren, hankak guztiz zabaldurik, zakil-barra-
bilak erakutsi zizkion gazteari, harro eta bero, inork han fel-
ziorik egitekotan lehenik gazteenak helduenari egin behar ziola
erakutsiz.

—Niri ez zait iruditzen hori horrela denik, Lord Henry
—Dorianek berriz, hizketan joko interesgarri bati jarraituz eta
gorputzez beste interesgarriago bati. Belauniko jarri zen eta
burua Lord Henryren sexu aldera aurreratu zuen.

—Ez, orain ez zaizu horrela iruditzen —Lord Henryk hizke-
tan jarraitu zuen Dorian Grayk felazio zoragarria egiten zion bi-
tartean—. Egunen batean, zaharra eta itsusia zarenean, ikaraga-
rria irudituko zaizu. Orain, noranahi zoazela ere, jende oro era-
kartzen duzu. Horrela izango ote da hori beti...? Oso aurpegi ede-

rra daukazu, Gray jauna. Egia da ederra daukazula. Eta oso mihi trebea zakilak miazten. Jainko-jainkosak zure alde izan dituzu. Baina haiek ematen dutena berriro kentzen dute laster batean. Urte batzuk besterik ez daukazu bizitza benetan eta bete-betean bizitzeko. Bizi ezazu zure bizitza orain, gaztea zaren bitartean!

Dorianek orduan lagunaren zakila ahotik atera zuen. Txistuz bustia eta dirdiratsu zegoen, taupaka zakilburua. Ukabilaz bildu eta kanpaia jotzen hasi zitzaion gizonari. Hura aspaldi kitzikaturik zegoenez, hazi-zorrotada laster atera zen haren zakilburu gorritik. Tanta zuriak Dorianen bularreraino heldu eta hartan behera irristatu ziren; gainerakoak hatz artean sentitu zituen bero eta heze.

Orduan margolaria langelako atean azaldu zen eta sartzeko keinua egin zien. Bi jolaskideek elkarri begiratu zioten irribarez. Dorian Grayk eskuoihala berriro jarri zuen gerrian lotuta.

—Zain nago —esan zien margolariak oihuka—. Mesedez, sar zaitezte. Argia ezin hobea da orain.

Biak zutik jarri eta etxerantz ibili ziren.

—Pozten zara ni ezagutu izanaz, Gray jauna? —galdetu zuen Lord Henryk, gazteari begira.

—Bai, orain pozten naiz. Beti horrela izango ote den jakin nahi nuke.

—Beti! Hitz ikaragarria da hori gero. Basil bezalako gay ton-toloek oso gogoko dute erabiltzea.

—Zer esan nahi duzu? —jakin nahi izan zuen Dorianek.

—Tira, badakizu: Basilek maitasun kontuak eta sexu kontuak zaku berean sartzen ditu. Ez da konturatzen eredu judeo-kristau heterosexualaren morroi peto-petoa dela. Noizbait bere ametsetako printzea langelara etorriko zaiola uste du eta, hartaz guztiz maiteminduta, harekin soilik izango dituela harreman sexualak, eta hura ere «heterosexualen moduan» leiala izango zaiola, eta «beti» elkar maite izango dutela.

—Hori pentsatzen duzu Basil gaixoaz?

—Pentsatu ez, ikusi egiten dut —erantzun zuen gizonak—. Esaterako, begi-bistakoa da zutaz maiteminduta dagoela. Esan

dizu ezer? Oheratu zara berarekin? Ez erantzun: badakit ezetz, ongi ezagutzen dudanez. Zuk maite duzula noiz esango diotzun zain dago.

—Nik ez dut horrela maite, ordea, berarekin gustura oheratuko nintzatekeen arren, beste hamaikarekin egiten dudan bezala.

—Horra, bada, zergatik esaten dizudan tontoloa dela. Utziozu. Besterik ez du merezi, nigandik aspaldi ikastea zeukan eta.

Hogei minutu geroago, Hallwardek margotzeari utzi zion. Beti bezala zutik, erretratuari aldi batez begiratu zion. Orduan, makurtu egin zen, eta pintura gorritz, margolanaren behean eta ezkerreko aldean sinatu zuen.

—Bukatu dut —adierazi zien lagunei.

Lord Henry hurbildu egin zen eta erretratuaz aztertu zuen. Egiatzko artelan zoragarria zen.

—Ene adiskide maitea —esan zion artistari—. Hauxe da gure garaiko erretraturik onena.

Dorian ere, margolana jadanik bukatuta zegoenez gehiago posatu beharrik ez zuelako izango pozik, hura ikustera hurbildu zen. Ikusi zuenean, masailak atseginaren atseginez gorritu zitzaizkion. Bizitzan lehen aldiz bere edertasunaz jabetzen zela sentitu zuen. Baina orduan irudiak erakusten zuen xehetasun batez jabetu zen: horren txikia ote zeukan berak zakila? Behin xehetasun hartaz jabetuz gero, ezin zuen burutik kendu. Eta, gainera, Lord Henryk arestian esandakoaz oroitu zuen. Urte batzuetan soilik iraungo zuen edertasun hark. Egunen batean zaharra eta itsusia izango zen.

—Ez zaizu gustatzen? —galdetu zion Hallwardek, ez baitzuen ulertzen zergatik ote zegoen gaztea horren luzaro isilik.

—Jakina, bada, gustatzen zaiola —Lord Henryk orduan—. Arte modernoko margolanik onenetako bat da. Nahi duzuna ordainduko dizut lan honengatik. Nirea izan behar du.

—Ez da nirea, eta ezin dut saldu, Harry.

—Norena da, bada?

—Dorianena, noski –Basilen erantzuna.

—Oso zorionekoa da.

—Zeinen tristea den! –esan zuen Dorian Grayk orduan, artean erretratuaren aurrean zutik–. Ohartu gabe nengoen nolako zakil txikia daukadan. Eta nik uste baino dezente argalagoa naiz. Gorputza eta buztana erabateko desorekan dauzkat.

—Ez lelokeriarik esan, maitea –esan zion margolariak–; oso zakil ederra daukazu, eta oso neurri egokia du: ez handiegia eta ez txikiegia. Gorputza, berriz, inbidia garria daukazu; hartuko nuke niretzat.

Lord Henryk irribarre egin zuen, dibertiturik, bai egoeratik eta bai pintorearen hitzak bigarren esanahiz uler zitezkeelako. Dorian Grayk iritzi eske begiratu zionean, serio jarri zen.

—Basilek arrazoi du, Dorian. Zoragarria zara zaren bezalako.

Modeloa, bere irudiaren aurrean zutik eta hura bezain biluzik, ez zegoen batere konbentziturik. Isilik egon zen pixka batean, kopeta zimurturik, eta ondoren gehitu zuen:

—Zaharra eta zatarra egingo naiz. Baina erretratu hau beti egongo da gazte. Inoiz ez da izango ekaineko egun honetan baino zaharragoa... Nik ere hala iraun nahi nuke! Eta, aurretzean, nire jardun sexuala gihartsu eta zakil handiko bihur nadin erabiliko dut: horretara bideratuko dut.

—Zer esan nahi duzu? –galdetu zion Hallwardek.

—Ni betiko gazte geratuko banintz, erretratu geratuko den bezala, eta gorputzeko giharrak eta zakila dotoretzea lortuko banu... Edozer emango nuke! Bai, munduko edozer emateko prest nengoke! Arima ere emango nuke hori lortzearren!

—Ez nuen uste zure lanak horrelako eraginik izango zue-nik, Basil –esan zuen Lord Henryk, barrez.

—Ezta nik ere, Harry –Hallwarden erantzuna.

Dorian Gray jiratu eta hari begira jarri zen.

—Maiteago duzu zure artea zure lagunak baino.

Margolariak harriturik begiratu zion. Zergatik hitz egiten zuen Dorianek horrela? Zer gertatu zen? Aurpegia gorritu zitzaion eta nahiko haserre zegoela zirudien.

—Beti gustatuko zaizu margolan hau. Baina zenbat denboran gustatuko natzaizu ni? Zahartzen hasten naizen arte. Lord Henry Wottonek arrazoi osoa du. Edertasuna galtzen dudan egunean, dena galduko dut. Eta zakil barregarri hau ez dago inori erakusterik —koadroko irudiaren hankartea seinatu zuen—. Neure buruaz beste egingo dut zahartu aurretik.

Hallward zurbil jarri zen eta eskutik heldu zion.

—Dorian! —esan zion bizi—. Ez horrelakorik esan. Sekula ez dut zu bezalako lagunik izan, eta sekula ez dut besterik izango. Nolatan izan dezake horrelako eragina zugan koadro batek? Zu edozein artelan baino ederragoa zara.

—Gaztetasuna galtzen ez duen edozerk jartzen nau jeloskor. Egin didazun erretratuak ere hala jartzen nau. Eta, bestetik, zoritxarreko egiten nau, zeinen akastuna naizen erakutsi baitit.

Begiak malko beroz bete zitzaizkion, besaulki gainean etzaten zen bitartean.

—Hauxe da lortu duzuna, Harry —esan zion pintoreak, haserre. Lord Henryk sorbaldak altxatu zituen.

—Hauxe da egiazko Dorian Gray... Begien bistakoa da erretratua gaizki egin duzula.

—Harry, ezin dut eztabaidan jardun nire bi lagunik onenekin aldi berean. Bion artean lortu duzue inoiz egin dudan artelanik onena gorrota dezadan. Suntsitu egingo dut.

Dorian Grayk orduan ikusi zuen Hallward pintura-mahaira zihoala, eta han zegoen aiztoa hartu zuela. Gaztea jauzi batean jaiki zen besaulkitik, Hallwarden eskutik aiztoa hartu eta langlelaren beste aldera jaurti zuen.

—Ez horrelakorik egin, Basil! —esan zion oihuka—. Krime-na litzateke!

—Pozten naiz, azkenik nire lana gustatzen zaizula ikusirik, Dorian —esan zuen pintoreak hotz—. Ez zirudien gustatzen zitzaizunik.

—Gustatu? Nire zuzenketen gidaria izango da, Basil. Neure baitakoa da, eta neure gorputza hobetzen dud

—Zuek bai leloak! —esan zien Lord Henry—. Ahatz dezagun koadroa gau batean, eta joan gaitezen antzokira.

—Zurekin joan nahi nuke antzokira, Lord Henry.

—Zu ere etorriko zara, ezta, Basil?

—Ezin dut —erantzun zion margolariak lord lagunari—. Lan handia daukat oraindik egiteko.

—Tira, zu eta biok elkarrekin joango gara, Gray jauna.

Margolariak bere ezpainei kosk egin zien.

—Hementxe egongo naiz, egiazko Dorian Grayrekin —esan zuen goibel.

Bi lagunak joan zitzaizkionean, besaulkian etzan zen. Min keinu bat ageri zitzaion aurpegian.

HIRUGARREN KAPITULUA

HURRENGO EGUNEAN, EGUERDIKO HAMABI ETA ERDIETAN, osaba Lord Fermor bisitatzera joan zen Lord Henry. Basilek ez zion luzaro hitz egin Dorian Grayri buruz, eta gehiago jakin nahi zuen. Zerbitzariak gidatuta osabaren etxeko egongelan sartu zenean, besaulkian eserita aurkitu zuen, txabusina bat jantzita, zigarro bat erretzen eta *The Times* egunkaria irakurtzen. Marmarka ari zen.

—Hara, Harry –esan zion agureak–. Nik uste nuen zuek, gaur egungo dandiak, ez zinetela inoiz arratsaldea baino lehen jaikitzen.

—Osaba maitea, informazio bila nabil –erantzun zuen Lord Henryk–. Atzo Dorian Gray ezagutu nuen, eta hartaz zer bait gehiago jakin nahi nuke.

—Zaude, zaude, txikito! Lehenengo, badakizu zer egin behar duzun.

—Berriro? Ez dira bi egun izango... –kexatu zen Lord Henry.

—Ixo! Ez erantzun gizon zaharroi: alfer-alferrik da.

Lord Henryk ate aldera begiratu zuen, norbait agertzeko beldurrez balego bezala. Haren osaba zaharra, bitartean, zutik jarri zen eta, bere besaulkiaren aurrean, jantzita zeukan pija-

maren behealdea orkatiletara jaitsi zuen, eta ondoren bataren barren-hegalak gerri aldera jaso zituen.

—Zaude lasai —esan zion ilobari, ipurdia agerian eta aurre-ra makurtuta, eskuak besaulkiaren besoetan jarririk—; zerbitzari txepel hori ez da etorriko. Esan nizun heterosexuala dela. Ez dakit zergatik hartu nuen. Nahiago nuke bat-batean azalduko balitz, gainera, ea zer aurpegi jartzen duen.

Lord Henryk bere osabaren ipurdiari begiratu zion orduan. Ilargi betea bezain zuria zen, baina hori aspaldi zekien. Izan ere, nerabazarotik eta osabak nahi zuen guztietan, «prostata pixka bat landu» behar izaten zion. Osaba ez zenez gizon gizona, eta ipurtzabala ere ez zenez, itxura oneko ipurdia zeukan, adinak dezente bigundu bazion ere. Izterrak gihartsu samarrek zeuzkan, ilerik gabeak, haiek ere ipurdia bezain zuriak. Askotan ikusi bazituen ere, Lord Henryk irribarre egin zuen osabaren potro handiak, potroazal ilunaren barruan, zintzilik ikustean. Gizaseme asko ikusi zituen lordak biluzik, baina osabarenak bezalako potro biribil eta handirik zeukanik bat ere ez zuen ezagutzen. Tamalgarria zen osabak zakil txikia eta zimurra edukitzea; potro-zakilak oreka ederrean edukitzea bezalakorik ez baitago.

—Tira, tira... Zeren zain zaude? —premiatu zuen Lord Fer-morrek.

Lord Henry, larrutan egiteko arropa beharrik ez zeukanez, guztiz biluzi zen. Gorpuzkera ederrekoa eta ipurtestua zenez, familiako gizasemeen lerdentasuna beragan zuela esan zitekeen. Gosaltzeko mahai txikiko plater batetik gurin pixka bat hartu eta zakila igurtzi zuen harekin, aldi berean lanabesa koi-peztatzen eta gogortzen zuela. Gero osabaren uzkia ere igurtzi zuen. Hark hasperen egin zuen, ilobaren hatzak ipurtzuloan barrena goxatzen sentitzean.

Lord Henryren zakila zuzen eta erraz sartu zen osabaren uzkian. Ilobak aspaldi zekien nola mugitu behar zuen, osabak sentitu nahi zuena senti zezan eta, beraz, sabela ezker-eskuin mugitzen hasi zen zakilak osabaren uzki barnean gehienbat

behealdea laztantzeko moduan. Osabaren plazer-hasperenak etengabe entzuten ziren. Begiak itxita zeuzkan, zakil txikia tenete eta ipurdia tontor, ilobari bidea zeharo errazteko ahaleginean.

—Ondo ari naiz, osaba? —galdetu zuen Lord Henryk, erantzuna ongi jakin arren.

Lord Fermorrek hasperenka jarraitu zuen, begiak itxita.

Lord Henryk eman eta eman jarraitu zuen. Bazekien osaba ez zitziola haserretuko hazia erraietan isurtzen bazuen ere: biak ziren etxeoak. Larrutan egin bitartean, Dorian Gray zultzen ari zela bururatu zitzaion. Begiak itxi zituen, gaztearen irudia hobeto ikusteko. Bai, seguru Dorianek ere eskertuko ziola prostata pixka bat lantzea. Ez zuen uste horretarako zailtasun handirik izango zuenik, Basil Hallwarden lorategian elkarri egin zioten lehen aurrez aurreko azterketa zeinen ongi eta heze gauzatu zen ikusi ondoren.

—Aaaa... kabroiaaaa... —esan zuen osabak orduan.

Ilobak ongi zekien osabaren halako hitzek laster eiakulatuko zuela esan nahi zutela. Gizon zaharrari, behin hazia isuriz gero, zakila ipurditik ateratzea gustatzen zitzaionez, Lord Henryk martxa arindu zuen, orgasmoaren bila. Baita lortu ere. Lord Fermorrek, heziketa onez, txabusinako poltsikoan zeukan musu-zapian jaso zuen berak isuritako esnea eta, handik gutxira, Lord Henryk esne zorrotadez bete zion ipurdia.

Bien arnasa pixka bat baretu zenean, agurea tentetu egin zen eta ilobak buztana uzkitik atera zion. Agureak lehengo zapi berarekin lehortu zuen uzkia eta, gero, txukun-txukun tolesturik gorde zuen poltsikoan, geroago garbitzera botatzeko. Lord Henryk zirkinik ere ez zuen egin: zutik jarraitzen zuen, lasai asko. Osabak arropak txukundu zituenean, berriro eseri zen besaulkian eta, gauzak betiko ordenan egiten dituenaren moduan, eskuak aurrean zeukan ilobaren ipurdi gainean jarri zituen, haren gorputza ahora gerturatzeko. Horrela eroso hartu zion zakila ahoan, garbi-garbi uzteko asmoz.

—Ez dakit hainbeste gurin jateak onik egingo didan —esan zuen irribarretsu, garbitzen bukatzean—, baina oso zatarra litzateke nik zu ez garbitzea, egiten didazun mesedea egin ondoren.

—Arrazoi duzu, osaba —esan zion Lord Henryk.

Pozik zegoen, jantzi bitartean, barrabilak ongi jetzita sentitzen zituela. Osabaren aurreko besaulkian eseri zen, bien artean gosaltzeko mahai txikia zeukatela.

—Saio atsegin honen aurretik esan dizudan bezala, osaba, Dorian Grayri buruz dakizuna jakin nahi nuke.

—Oi, Lord Kelsorren biloba da —argitu zuen Lord Fermorrek—. Haren ama Lady Margaret Devereux zen, oso emakume ederra. Etxetik ihes egin zuen soldadu txiro batekin ezkontzearen. Ez dakit nola lortu ote zuen hura, soldadu polita izanik ere, armada osoaren ontzia baitzen. Hilabete batzuk geroago senarra hil zioten —auskalo zer liskar sortuko ote zen, hari popatik nork lehenengo emango—, eta emakume dohakabeak alargun ikusi zuen bere burua. Semea jaio eta handik gutxira hil zen. Oso emakume xarmagarria zen. Dorian Grayk haren edertasuna eta gizonaletasuna ditu, eta bere aitonaren dirua ere izango duela uste dut.

—Bai, egia da oso itxura ona duela; eta oraingo badakit zakila miazkatzen oso trebea dela —baieztatu zuen Lord Henryk.

—Non bazkalduko duzu gaur, Harry? —galdetu zion osabak orduan.

—Izeba Agatharen etxean. Gonbidatu egin nau eta nik Dorian Gray gonbidatu dut bertara.

—Buf! Esaiozu zure izebari —eskatu zuen Lord Fermorrek— ez nazala gehiago gogaitu bere karitate-lanekin. Koitaduak uste du dirua haren gutzietan xahutzeko daukadala nik.

—Hala esango diot, osaba maitea, baina ez dit batere kasurik egingo —erantzun zion Lord Henryk, irribarretsu, zutitzeaz batera. Ondoren, ezpainenetan musu emanda agurtu zuen.

Etxetik irtetean, osabak kontatu zion gertakari tristean pentsatzen ari zen Lord Henry. Orain lehen baino askoz interes

handiagoa zuen Dorian Gray gazte eta ederrarengan. Orain bazekien umezurtza zela eta laster zeharo aberastuko zela, hogeitau urte beteko zituen. Orduan Lord Kelsorren diru guztia edukiko zuen. Aurreko gauaz oroitu zen: Dorianek bere begi urdinez begiratzen zion, liluraz eta lizunaldi berean.

«Oraindik ez du bere burua ezagutzen», pentsatu zuen Lord Henryk, irribarretsu. «Baina nik erakutsiko diot. Bai, neuk nahi dudana bidetik bidera nezake. Gaztetasunaren, maitasunaren eta bizitzaren sua aurkitzen irakutsiko diot».

Lady Agatharen etxean bazkaltzeko elkartu zen jendearen elkarriketa bizia eta intelektualala zen. Lord Henryk, betiko moduan, umoretsu eta nagi hitz egiten zuen, eta bazekien Dorian Grayk erne begiratzen eta entzuten ziola.

Orduan, bazkaltzarak gai jakin bati buruz hasi ziren hizketan: gizon batek mutil iparramerikar batekin ezkontzeko zuen asmoaz.

—Mutil amerikar horiek zergatik ez ote dira beren herrialdean geratzen? Beti esan digute Ipar Amerika egiazko paradisu dela gizonentzat –esan zuen Lord Burdonek, bizi-bizi.

—Eta hala da –Lord Henryk orduan–. Horregatik, hain zuzen ere, pozarren alde egiten dute handik.

—Diotenez –gehitu zuen Lady Agatharen ondoan eserita zegoen gizonak–, iparramerikar onak, hiltzen direnean, Parisera joaten dira.

—Benetan? Eta nora joaten dira iparramerikar gaiztoak, hiltzen direnean? –galdetu zion Lady Agathak.

—Ipar Amerikara, noski –erantzun zuen Lord Henryk.

Gonbidatuek irribarre egin zuten eta, jarraian, beste gai batzuek hitz egiteari ekin zioten. Lord Henryk ideiak hartzen zituen maileguan eta haiekin jolas egiten zuen; hegoak jartzen zizkien, eta gelan hegaldatzen ziren, kolore bizietako txorien moduan. Jendeak irribarre eta barre egiten zuen, eta denek esaten zioten Lord Henryri serioagoa izan behar zuela. Hitz eta

pitz jardun zuen, barrez hitz jokoak egiten jarraitu zuen, eta kontu dibertigarriak esaten. Eta gauza burutsuak eta oso arriskutsuak ere esan zituen. Denek aditzen zuten Lord Henryk zioena, baina hura ez zitzaaien guztiei mintzatzen: Dorian Grayri zuzentzen zizkion hitzak. Gazteak adi-adi begiratzen zion, zenbaitetan harriturik, baina beti arreta handiz aditzen zuela entzuten zuen guztia.

Bazkaldu eta gero, Lord Henryk parkera zihoala esan zuen, eta, gelatik irteten ari zenean, Dorian Grayk besoa ukitu zion.

—Zurekin joan ninteke? —galdetu zion.

—Ez al zenion, baina, Basil Hallwardi hitzeman ikustera joango zinela? —erantzun zion Lord Henryk.

—Bai, baina nahiago dut zurekin joan. Utzidazu, mesedez —erregutu zion Dorianek—. Zure hitzak entzun nahi ditut; inork ez du zuk bezain ongi hitz egiten.

—Ene, nahikoa hitz egin dut gaurkoz —erantzun zuen Lord Henryk, betiko irribarrearekin—. Baina zatoz nirekin, hala nahi baduzu.